



Arartekoaren 2018S-812-18 Ebazpena, 2018ko abenduaren 19koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio osagarriari dagozkion zenbateko batzuk, bidegabe jasotakoak, itzultzeko ebazpena.

Aurrekariak

1.- Herritarrak Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, ez dagoelako ados Lanbideren jardunarekin. Hain zuzen ere, ez dago konforme erakunde horrek adierazi izanarekin 29.453,41 euro itzuli behar dituela diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bidegabe jaso zituela-eta.

Aldez aurretik, 2016ko azaroaren 23ko ebazpenaren bidez, kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzea erabaki zuen Lanbidek, arrazoi hauek zirela tarteko: *"No comunicar, en el plazo máximo de quince días naturales contados a partir del momento en el que se produzcan, los hechos sobrevenidos que pudieran dar lugar a la modificación, suspensión o extinción del derecho a la prestación. Ocultación de datos sobre la composición de la UC. Usted está registrada como pareja de hecho desde el 08/04/2011. Este hecho supone la extinción de la prestación y un año de sanción sin poder cobrar la misma. "*

Egun berean, eta arrazoi berak zirela medio, enplegu-erakunde autonomoak 29.453,41 euro itzultzeko prozedura abiarazi zion; zenbateko hori berrikusitako aldiari zegokion, hau da, 2012ko azaroaren 13tik 2016ko urriaren 31ra bitarteko aldiari.

Kexagileak alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta haren bidez azaldu zuen ez zettorrela bat neurri horrekin; hala ere, 2017ko otsailaren 4ko ebazpenaren bitartez, Lanbidek ezarri zuen prozedura abiaraztean adierazitako zenbateko osoa itzuli behar zuela herritar horrek. Beraz, ez zituen aintzat hartu kexagileak aurkeztutako alegazioak; horien helburua zen egiaztatzea hark eta bikotekide ohiak (alabaren aitak) ez zutela ezkontide-harremanik edo haren antzeko harremanik izan.

Horrez gain, berraztertze errekurtsoa jarri zuela aipatzen zuen, baina horren frogagiria erantsi gabe.



2.- Azaldutako egitateak testuinguruan kokatze aldera, bai itzultzeko prozeduraren aurkako alegazio-idazkian, bai erakunde honi helarazitako kexa-idazkian, interesdunak azaldu zuen zergatik ez zuen baja eman Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen erregistroan harremana bukatu bezain laster.

Horri lotuta, jakinarazi zion pertsona hori 2011n ezagutu zuela, eta handik oso gutxira –2011ko apirilaren 8an– eman zutela izena izatezko bikotetzat. Horrez gain, esan zuen ez zekiela zer ondorio zekartzan burutzen ari zen izapideak.

Elkarrekin bizitzen hasi eta gutxira, genero-indarkeriako egitate batzuk jazo ziren, eta nahiz eta interesdunak ez zuen bikotekide ohia salatu, harremana amaitu egin zen, eta bikotekide ohiak etxebizitza utzi zuen. Kexagileak ziurtatutakoaren arabera, harrezkero, pertsona horrekin ez du gehiago bizikidetzen jardun.

Handik hiru urtera, 2014an, pertsona hori kexagilearen etxean sartu zen haren borondatearen kontra, eta indarkeriazko beste egitate bat gertatu zen. Interesdunak salatu egin zuen gertaera hura; Sestaoko polizia-etxean jarri zuen salaketa, 2014ko azaroaren 22an, eta, horren ondorioz, abenduaren 1eko Barakaldoko Zigor-arloko 2. Epaitegiaren 1520439/2014 Ebazpenaren bidez, 6 hileko urruntze-agindua exekutatu zen.

2015ean, urruntze-agindua amaitzean, kexagileak harremanak izan zituen pertsona horrekin, eta, horren ondorioz, 2016ko martxoaren 11n, komunean duten alaba jaiotzen; gaur egun, bi urte ditu eta interesdunak du haren ardura. Ildo horri eutsiz, Lanbideren aurrean aurkeztutako alegazioen idazkian senar-emazteen bizia edo antzekoa ez zutela izan azpimarratu zuen, ezta alaba jaiotzen ere.

3.- Kexagileak 2017ko otsailaren 2an izatezko bikoteen erregistroan baja eskatu zuen. Orduan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientean azaltzen zen egoerara ez zen egokitzen eta Lanbideak erregistroan alta emanda zegoela jakinarazi zion. 2017ko martxoaren 2an, kexagileak izatezko bikoteen erregistroak igorritako baja-ziurtagiria aurkeztu zuen.

4.- Arartekoak kexa izapidetzeko onartu ondoren, Lanbideri laguntza eskatu zion, aurreko gertaeren gaineko informazioarekin batera. Zehazki, gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion:

- a) Zergatik ez diren kontuan hartu kexagileak Lanbideri jakinarazitako inguruabarrak: interesdunak aurkeztutako datuak, egiaztatzen dutenak ez duela osatzen bizikidetzaren unitate bakarra aipatutako pertsonarekin; eta, batez ere, 2014ko abenduaren 1eko urruntze-agindua, frogatzen duena ez direla elkarrekin bizi.
- b) Zer iritzi duzun erakunde honek egindako aurretiazko gogoeten inguruan, bereziki proportzionaltasun-printzipioa eta adingabearen interes gorena errespetatzeari buruzkoaren inguruan.
- c) Zer iritzi duzun izatezko bikoteen erregistroan baja ematean izandako atzerapenak dagokion zehapena (interesdunak ez ditu urtebetez jaso dirusarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria) ekarri duela dioen gogoetaren inguruan; horren arabera, neurritz kanpokoan da herritar horri 29.453,41 euro erreklamatu izana.
- d) Aurreikuspenen arabera, noiz ebatziko den egindako berraztertzearen errekurtsoa. Errekurtsoaren ebazpena ematean, arren, bidaliezadazu haren kopia bat.
- e) Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

5.- Lankidetzaren eskaerari erantzunez, Lanbideren zuzendari nagusiak hurrengo txostena bidali du:

“Aipatutako espedientea aztertuta, egiaztatu da interesduna izatezko bikoteen erregistroan sartuta zegoela 2011ko apiriletik. Bestalde, dioenaren arabera izatezko bikotekiderik izan ez duen aldiak alaba bat izan du bananduta dagoela dioen pertsonarekin. Horiek direla eta, zalantzarikoa da pertsona horrekin ezkontideen artekoaren antzeko harremanik ez zuelako baieztapena.

Uste dugu egitate horiekin ezin dela zehaztu zein izan den pertsonaren bizikidetzaren unitatea erreferentziazko urteetan, eta, beraz, bidezkoa da aldi horretan kobratutako kopuruak itzultzeko eskatzea.

Lanbiden ez dago emandako ebazpenaren aurkako errekurtsorik, itzulketa-prozeduraren aurka egindako alegazio batzuk baizik, baina ezetsi egin ziren.”



Gogoetak

1.- Lanbidek arestian aipatu den ebazpenaren bitartez kexagilearen prestazioa azkentzea erabaki zuen ondorengo arrazoietan oinarrituta:

“No comunicar, en el plazo máximo de quince días naturales contados a partir del momento en el que se produzcan, los hechos sobrevenidos (...)” eta “Ocultación de datos sobre la composición de la UC”.

Beraz, Lanbideren esanetan, ezin daiteke bizikidetzaren unitatea zehaztu, enplegu-erakunde autonomoari ez baitzitzaien jakinarazi Eusko Jaurlaritzarentzat erregistroan izateko bikote modura inskribatua zegoenik. Bidalitako txostenean Lanbidek erantsitakoaren arabera, baldintzak ez betetzeko beste arrazoi bat da interesdunak alaba eduki zuela bikotekide ohiarekin 2016ko martxoaren 11n.

Az kentzeko ebazpenean bi arrazoi aipatu arren, zuzendari nagusiaren txostenetik ondorioz daitekeenez, az kentzeko arrazoia litzateke 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta gizarteratzeko denak, 28.1.c) artikuluan xedatutakoa. Hala dio: *“Behin betiko galtzea eskubidea aitortzeko exijitutako eskakizunetako bat”.*

Horren guztiaren ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak az kentzeaz gain, 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta gizarteratzeko denak, 28.3. artikuluan aurrez ikusitakoa aplikatu zen. Beraz, kexagileak az kentzeari buruzko ebazpenetik urtebete igaro arte ezin izan zituen berriz eskatu diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria. Azkenik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izan zen aldi osoan (2012ko azaroaren 13tik 2016ko urriaren 31ra arte) interesdunak jasotako zenbatekoak (29.453,41 euro) itzuli behar zituen.

Arartekoak, ondoren aipatzen dituen arrazoiengatik, interpretatutakoari jarraiki, ustezkoak ez du zerikusirik kasu zehatzak dituen gorabehera berezi anitz eta zorrotzekin.

2.- Lehenik eta behin, erakundearen iritziz, izatezko bikoteak arautzen dituen araudiari buruzko gogoetaren bat egin behar da.



Ildo horri eutsiz, 2/2003 Legeak, maiatzaren 7koak, izatezko bikoteei buruzkoak, 2. artikuluan xedatzen du **izatezko bikotearen kontzeptua**: *“Lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da **bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak** izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere.”*

Izatezko bikoteen erregistroan inskribatuta egonez gero, inskribatutako pertsonen aurreko araudia aplikatzen zaie, hau da, bertan adierazten diren onurak eta betebeharrak. Hala ondoriozta daiteke lege beraren 3. artikulua aztertuta: *“1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa sortuko da, eta hor izena ematen duten bikoteak legez eratu direla joko da; beraz, izena ematen ez duten bikoteei ez zaie lege hau aplikatuko.”*

Hots, erregistroan inskribatzean, 2/2003 Legeak, maiatzaren 7koak, araututakoa aplikatzen zaie lege-izapide hori egitea erabakitzen duten bikoteei.

Era berean, lege bereko V. kapituluak **aurreko araudirako izatezko bikotea azkentzea** arautzen du eta horretara iristeko arrazoi desberdinak zehazten dira.

Araudiko 18. artikulua araberan, izatezko bikotea ondorengo arrazoiengatik azkenduko da:

“Bikotea amaitzeak dituen ondorio eta betebeharrak:

- a) Kide biak horretan ados jarri direlako.*
- b) Bietako batek hala erabaki duelako, eta besteari egiaztatzeko moduan jakinarazi diolako.*
- c) Bikotea osatzen dutenetako bat hil delako edo hildakotzat jo dutelako.*
- d) Izatezko bikotea osatzen dutenak elkarrekin ezkondu direlako.*
- e) Bikotea osatzen dutenetako bat ezkondu egin delako.”*

Horri lotuta, 19. artikulua, *“Bikotea amaitzeak dituen ondorio eta betebeharrak”* hala dio: *“ 1.– **Izatezko bikotea amaitzen baldin bada, bi kideek, edo bi kideetako batek –erabakia bakarrarena baldin bada–, kasuan kasuko erregistroko izen-ematea bertan behera uzteko eskatu beharko dute. Ez kide batek ez besteak ezin izango du lege honen arabera beste bikoterik osatu, aldez aurrekoa bertan behera uzten ez baldin badu. (...)”***

Guztia kontuan hartuta, ondoriozta daiteke izatezko bikotea azkendutakoan, aldeek, edo behintzat batek, izatezko bikoteen erregistrotik ateratzea eskatu behar dutela. Egia da kexagilearen betebeharra zela eta inskribatu ondoren, hilabete batzuk geroago, izatezko lotura amaitu zenean, alegia, eskakizuna bete behar zuela. Hala eta guztiz ere, ez egin arren, ez du esan nahi halabeharrez bikotearekin harremana zuenik. Bikotearen aurreko harremana amaitua egon zitekeen, nahiz eta inskribapena ezabatzeko erregistroan ezinbesteko komunikaziorik ez burutu.

Arartekoaren iritziz, eskakizuna ez bete arren, Lanbidek ezin dezake automatikoki baieztza bizikidetzaren unitatea berak adierazitakoa (kide bakarrak eta, ondoren, bere alabak osatutakoa) ez zenik. **Izan ere, izatezko bikotea erregistroan baja eskatzearekin ez da azkentzen; nahikoa da 18. artikuluan aipatzen den arrazoiren bat egiaztatzea. Egiaz erregistroan baja ematearen eskakizuna bikotea puskatu edo azkendu denean gertatzen da, baina ezin daiteke ondoriozta inskribapena ezabatzea azkentze-arrazoiaren denik.**

Argudio berdinari eutsiz, senar-emazteen harremanetan izatez banantzea kode zibilak senar-emazteak arautzen dituen aurrez ikusten du. Indarreko senar-emazteen lege-araubidean izatez bananduz gero, lege-ondoreak ditu. Aurrekoaren harira, irabazpidezko sozietatearen desegitea eta likidazioa arautzean, kode zibilaren 1393.3. artikulua ondorengo dio: *“Elkarren arteko adostasunez edo egoitza uzteagatik urtebete baino gehiago izatez banandua egotea”.*

Are gehiago, senar-emazteen harremana edo parekoa zehazteko ezaugarriak azaltzen dira. Jurisprudentziaren doktrina tarteko, *more uxorio* bizikidetasunaren baldintza zehatzak batzea eskatzen du. Ildo horri jarraiki, Auzitegi Nagusiaren 469/1992 Epaia, 1992ko maiatzaren 18koak, honakoa dio: *“la convivencia more uxorio ha de desarrollarse en régimen vivencial de coexistencia diaria, estable, con permanencia temporal consolidada a lo largo de los años, practicada de forma*

externa y pública con acreditadas actuaciones conjuntas de los interesados¹.

Begi-bistakoa denez, jurisprudentziak garrantzi berezia ematen dio bi aldeen arteko bizikidetzaren erkideari. Aztergai dugun kasu honetan, gogora dezagun alabaren aita denbora horretan guztian zehar ez dela erroldatua egon. Horrez gain, eguneroko harreman egonkorrean elkar bizi zirela ondorioztatzeko bestelako frogarik ez dago. Kanpoan eta jendaurrean baterako jardueren bidez ezin daiteke egiazta.

3.- Bestetik, egiaztatua dago prestazioen titularrak bikotekide ohiaren eskutik **etengabe genero-indarkeria jasan zuela**, hortaz, justifikazio nahikoa izan daiteke elkarbizitza zalantzan jartzeko, baita oso gertakari garrantzitsua azaltzeko ere, hain zuzen, alaba izatearena.

Itzultzeko prozedura hasi zenean kexagileak alegazioen idazkian Lanbideri jakinarazi zion bezala, elkarrekin bizitzen hasi eta gutxira, genero-indarkeriako egitate batzuk jazo ziren, eta nahiz eta interesdunak ez zuen bikotekide ohiak salatu, harremana amaitu egin zen, eta bikotekide ohiak etxebizitza utzi zuen. Kexagileak ziurtatutakoaren arabera, harrezkero, pertsona horrekin ez du gehiago bizikidetzen jardun. Gero, 2014. urtean, berriz genero-indarkeriaren egitatea suertatu zen eta une horretan salatu zuen. Horren ondorioz, 6 hilabeteko indarraldiarekin urrutze-agindua eman zen. Azkenik, topaketa puntualaren ondorioz, 2016ko martxoaren 11n elkar duten alaba jaio zen eta gaur egun bi urte ditu. Interesdunaren babesean dago.

Azkenekoa egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia Zuzenean zerbitzuan 2017ko urtarrilaren 31n entregatu zen, Lanbide itzultzeko prozedura izapidetzen ari zen bitartean. Hala eta guztiz ere, Arartekoari erantzuteko erakundeko zuzendari nagusiaren txostenari erreparatuz, alegazioak ezetsi ziren.

Harreman pertsonalen konplexutasunagatik, askotan egoera "lauak" definitzen dituen legezko agindu zehatzean sartzea zaila da. Are gehiago, **emakumearen**

¹ Zentzu berean, Gasteizko 3. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak dio bere urtarrilaren 20ko 9/2014 Epaian "more uxorio" elkarbizitza existitzeko honakoa behar dela: "...ezkon-lotura moduan bizi-eta interes-erkidegoa elkartzea. Hala dela antzemateko bizikidetzaren beharrezkoa da, hau da, **ohikotasuna, egonkortasuna eta denboran iraunkortasuna**, senar-emazteen itxura berarekin. Beraz, noizean behin, egoerak bultzatuta, elkar bizitzea ez da nahikoa, ezta harreman afektibo hutsa ere, nahiz eta denboran luzatu. Aipatu ezaugarriez baliaturik, **bizi-erkidegoa** behar da, senar-emazteen biziarekin parekatu ahal izateko".

aurkako indarkeriaren pareko aldagai maltzurra jokoan sartzen denean. Izan ere, ziklikoki azaltzen dira, lasaitasun- eta afektu-aldiak bizia arriskuan jar dezaketen egoerekin tartekatuta.

Egia da **“joan-etorriak”**, hausturak eta adiskidetzeak maiz gertatzen direla eta askotan indarkeriaren emakume biktimentzat irten eta gainditzearen barruan daudela. Kontuan hartu behar da, indarkeriaren emakume biktinek egoeratik ateratzea erabakitzen dutenean, ohiturak, usadioak eta bizimoduak hautsi behar dituztela. Hala, beren autonomia pertsonal lortu eta errealitate berrira moldatzeko gaitasunak garatzean betiere linealtasunik ez dago. **Izaera zikliko horri edo prozesuan goraldi eta beheraldiei erreparatzen ez badizkiegu, emakume horiek errekupeazioan babestu nahi dituzten gizarte-zerbitzuetatik urrunduko ditugu.**

Aurrekoari eutsiz, **administrazioak indarkeriaren emakume biktimen babes integrala zaindu behar du bere jardun guztietan, generoaren ikuspegia eransteaz gain.** Horren harira, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, genero-indarkeriaren aurka oso-osorik babesteko neurriei buruzkoak, 2 f) artikuluan honako helburua sartzen du:

“f) Establecer un sistema integral de tutela institucional en el que la Administración General del Estado, a través de la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer, en colaboración con el Observatorio Estatal de la Violencia sobre la Mujer, impulse la creación de políticas públicas dirigidas a ofrecer tutela a las víctimas de la violencia contemplada en la presente Ley.”

lido beretik, otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako denak, printzipio orokorrei buruzko hirugarren artikuluan hala dio:

3.4. artikulua: *“Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.*

Lege honen ondoretarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase

guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.”

Kasu honetan, Lanbidek gizarte-prestazioak onartzeari atxikitako baldintzak eta betebeharrak genero-ikuspegiaren ikuspuntu barneratzailearekin bat interpretatu behar ditu.

Arartekoaren ustez, gai hau ebazteko orduan, oso garrantzitsua da genero-indarkeriaren emakume biktima dela kontuan hartzea. Arestian aipatu den bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintzak betetzen ez dituela zehaztu nahi izanez gero, kasu honetan ez da frogatu kexagileak bizikidetzaren harreman egonkorra izan duenik. Beraz, ordaindutako prestazio guztiak itzultzeko erreklamazioak ez du justifikaziorik.

Hala, aztergai dugun kasuarekin parekotasunarengatik eta izatezko banaketaren ondorioen gainean jurisprudentziak aipatzen duelako, erabilgarria da **Bartzelonako Probintzia Auzitegiak emandako 2012ko uztailaren 12ko SAPB 487/2012 Epaia jotzea**. Horren arabera, senar-emazteen irabazpidezko sozietatearen amaiera-data ezkontide gizonezkoa emakumeari hurbiltzea debekatu zen autoaren eguna da, dibortzioaren epaia bi urte geroagora arte ez eman arren.

Zehazki: “Por otra parte se ha de partir del hecho de que el cese efectivo de la convivencia matrimonial se produjo a partir del 17 de mayo de 2006 fecha en la que se dictó por el Juzgado de Violencia contra la Mujer nº 1 de Barcelona, Auto prohibiendo la aproximación del actor a la demandada. Se interpuso demanda de divorcio a finales de 2005, dictándose sentencia de divorcio en fecha 16-1-2007 que fue confirmada por sentencia de 16-12-07 dictada por esta Sección de la Audiencia Provincial. Es reiterada la doctrina del Tribunal Supremo en el sentido de que la separación de hecho consentida quiebra la base de la sociedad de gananciales, por lo que desde que se produce dejan de existir bienes comunes sujetos a la normativa de dicha sociedad, sin que ello impida por supuesto que así se califiquen los habidos hasta la separación.”

Epaia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzian oinarritzen da, besteak beste, Auzitegi Nagusiaren 2007ko otsailaren 23ko Epaian. Horrek hurrengo adierazten du: *“es la separación de hecho la que determina, por exclusión de la convivencia conyugal, que los cónyuges pierdan sus derechos a reclamarse como gananciales bienes adquiridos por éstos después del cese efectivo de la convivencia, siempre que ello*

obedezca a una separación fáctica, sería, prolongada y demostrada por los actos subsiguientes de formalización judicial de la separación y siempre que los referidos bienes se hayan adquirido con caudales propios o generados con su trabajo o industria a partir del cese de aquella convivencia "en la medida que la separación de hecho libremente consentida destruye el fundamento de la sociedad conyugal."

Hona hemen txostenean ateratako ondorioa: *"Ahora bien, siempre que como se ha indicado, se trate de una separación de hecho prolongada, pues en la generalidad de los supuestos hemos de estar a lo que dicen los meritados arts. 95.1 y 1392 CC. De acuerdo con la jurisprudencia no depende tanto del periodo de duración de la separación de hecho como de "la efectiva e inequívoca voluntad de romper la convivencia conyugal" (Sentencia de 23 de febrero de 2007), o la "inequívoca voluntad de poner fin, con la separación de hecho, al régimen económico matrimonial" (Sentencia del Tribunal Supremo de 26 de abril de 2000) efectiva e inequívoca voluntad que puede derivar de actos concluyentes como la interposición de denuncia por maltrato y solicitud de medidas de protección, en concreto orden de alejamiento, como ha ocurrido en el supuesto de autos."*

Lege-erabaki honekin bat eta aurreko ataletan azaldutakoari erreparatuz, kode zibilak eta jurisprudentziak izatezko banantzea balioztatzen duten bitartean, ez dirudi arrazoizkoa Lanbidek izatezko banantzearen errealitatea kontuan ez hartzea, izatezko bikoteen erregistrotik inskribapena ezabatu denean izan ezik.

4.- Lanbidek 2012ko azaroaren 13tik 2016ko urriaren 31ra bitartean ordaindutako prestazioak itzultzea eskatu du. Arartekoa araudi aplikagarria interpretatzean Lanbideren ikuspuntutik aldentzen da.

Lehenik eta behin, 147/2010 Dekretuak, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoak, 56. artikuluan xedatzen duena erreproduzitu behar da: *"Aldentzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak behar bezala jaso ez dituen prestazioak edo horien ondoriozko zenbateko okerrak itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi² eskudunak".*

Oro har, erakunde honek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptuetan bidegabeko prestazioak erreklamatzeari Lanbideren prozesua zehatz-mehatz aztertu zuen, besteak beste, diagnostiko-

² Lanbide.

txostena, lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. urtekoan. Horretan prestazioak itzultzeko parekatuak dituzten ustezkoei buruz hausnarketa egin behar dela nabarmentzen du. Araudiak jasotako prestazioak itzultzea eskatzen du, **aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein inguruabar dela-eta, diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabeki jaso dela “egiaztatzen bada”**. Arartekoaren iritziz, bakarrik itzuli beharko da baldintzak betetzeari uzten bazaizkio. Eskakizunen bat ez bada betetzen, ordea, prestazioaren titularra izateko baldintzak betetzen zituelako, bidegabenez hartzea ez dela egiaztatu interpreta daiteke. Ustezko horretan, araudiak prestazioa denboraldi batez etetea aurrez ikusten du. Hori erantzun egokiagoa da, baldintzak betetzen zituena egiaztatzeko eskakizunen bat bete ez duenean.

Laburbilduz, hauxe adierazten zen bertan: *“prestazioa jasotzeko eskubidearen titularra izateko betekizunak betetzen dituen bizikidetzak-unitateak betebeharrak betetzen ez dituenen, prestazioak erreklamatzeko neurri kanpoko ondorioa da (ez-betetzetik sortutako beste ondorio batzuek gain)”*.

Arartekoaren ustez, arestian aipatu den bezala, izatezko bikoteen erregistroan baja ez emateak eta 2016. urtean bikotekide ohiarekin alaba izateak aztarna garrantzitsuak dira bizikidetzak-unitatea kide batek edo bere bikotekidearekin batera unitateak osatzen al zuen zalantzan jartzeko. Dena den, horrekin nahitaez baldintzak ez direla betetzen ezin daiteke zehatz; ildo horri eutsiz, bi errealitate desberdin bereizi beharko lirake: 147/2010 Dekretuak 9.1. artikuluan xedatutako baldintza ez betetzea, hau da, *“gutxienez urtebete lehenago bizikidetzak-unitatea eratzea”* edo 147/2010 Dekretuak 12.1.f.1) artikuluan zehaztutako eskakizuna ez betetzea, hots, *“bizikidetzak-unitatearen konposizioari eragiten dizkioten gertakariak zenbatzetik hasita, udalari gehienez egutegiko hamabost eguneko epean jakinaraztea”*.

Erakunde honen iritziz, **errealitate materiala dago, faktuz banantzea, alegia, genero-indarkeriaren egoerarekin batera. Azkenekoa, gainera, legez egiaztatu da. Hala, errealitate formalaren, hau da, kexagileak izatezko bikoteen erregistroan inskribapena ezabatua ez izatearen aurka doa edo, gutxienez, hori nabarmenki aldatzen du.**

Halaber, elkar izandako alaba jaiotzea ez da erabakigarria bizikidetzak egonkorra dela zehazteko horren ezaugarriak kontuan hartuta: bizi- eta interes-erkidegoaren

elementuetan oinarrituta, ohikotasuna, egonkortasuna eta denboran iraunkortasuna adierazten duten baterako jarduerak kanpoan eta jendaurrean azaltzea. Guraso bakarreko familiak ohiko errealitate dira gure gizartean eta baieztapen hori kolokan jartzen dute.

Nolanahi ere, egiaztatu da 6 hilabeteko indarraldiz urruntze-agindua izan zela eta *"more uxurio"* eta *"bizi-erkidegoa"* senar-emazteen elkarbizitza, jurisprudentziak aipatzen duena, ez da eman.

5.- Arartekoaren ustez, aurreko gorabeheri erreparatuz, gizarte-baztertzearen egoeran egonda, genero-indarkeriaren emakume biktimari 29.453,41 euro erreklamatzeko gehiegizkoa da. Lanbidek ez ditu behar bezala haztatu gorabeherak, administrazio publikoen esku-hartzei buruzko printzipioen artean 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, sektore publikoaren lege araubideari buruzkoa, 4. artikuluan proportzionaltasunaren printzipioa aplikatzea aurrez ikusi arren:

"1. Las Administraciones Públicas que, en el ejercicio de sus respectivas competencias, establezcan medidas que limiten el ejercicio de derechos individuales o colectivos o exijan el cumplimiento de requisitos para el desarrollo de una actividad, deberán aplicar el principio de proporcionalidad y elegir la medida menos restrictiva, motivar su necesidad para la protección del interés público así como justificar su adecuación para lograr los fines que se persiguen, sin que en ningún caso se produzcan diferencias de trato discriminatorias. Asimismo deberán evaluar periódicamente los efectos y resultados obtenidos".

Proportzionaltasun-printzipioa printzipio konstituzional bat da; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziek zabalki garatu dute. Lehian dauden eskubide, interes eta balioen arteko gatazka ebaztera bideratuta dago, eta, kasu honetan bezala, araudi-aplikazio baten ondorioak neurritz gainekotzat jotzera.

Gaur egun, doktrina finkatua da proportzionaltasunaren kontrolak aldi berean aztertzen den neurriaren egokitasuna ere kontrolatzen duela (erdi-amaierako harremana); halaber, hori beharrezkoa den aztertzen da (aukera hoberik ez egotea) eta proportzionaltasuna kontrolatzen da, zentzu zorrotzean, ondorioak kontuan hartuz (ukitutako interesak eta gatazkan daudenak neurtzen dira, abantailek eragozpenak gainditu edo behintzat konpentsatzen dituzten egiaztatzeko). Azken hori gehiegikeria-debeku gisa ere ezagutzen da.



Laburbilduz, bizikidetzaren unitatean ondorioen larritasuna haztatu behar da ezaugarriak baztertu gabe: genero-indarkeriaren biktima izan den emakumea alaba adingabearekin bere ardurapean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintza materialak betetzen dituen, baina eskakizun zehatzak bete ez dituen, hala nola, izateko bikoteen erregistroan inskribapena ezabatzea eta Lanbideri ezabatze hori garaiz eta forman jakinaraztea.

6.- Laburpen modura, Arartekoak interpretatutakoarekin bat, Lanbidek zalantza izanez gero, beste baliabide batzuek baliatu beharko litzateke prestazioen titularraren bizikidetzaren unitatearen egiazko konposizioa definitzeko eta, aldi berean, eskakizunak edo baldintzak ez al zituen betetzen zehazteko, itzultze-prozesura hasteari begira. Izan ere, hori bakarrik bigarren kasuan has daiteke. Administrazioak jardun hori egin ez bazuen, kexagileak alegatutako gorabeherak bikotekide ohiak hurbiltzeko zuen debeku-aldian funtsatuta, gutxienez itzuli beharreko zorraren zenbatekoa ikuskatzeko nahikoak zirela ulertu zuen.

Laburbilduz, erakunde honen iritziz, kexagilearen jardura edo ez-egite eta Lanbideren erantzunaren artean ez dago bidezko oreka. Neurritz kanpoko karga da denboraldi horretan jasotako prestazio guztiak itzultzea, prestazioen titularra izan zen denboraldi guztian zehar zabaltzen baita.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendioa luzatzen zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

IRADOKIZUNA

Lanbidek berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptuan bidegabekizunak jaso dituen prestazioak itzultzeko ebazpena.

